



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017/05/17

BILERA ZENBAKIA:5

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Tere, Maddi, Maite, Rosi, , Amaia, , Joxeluis, Iker

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA


1. KULTUR EKINTZEN BALORAZIOA ETA AURRERA BEGIRAKO EKINTZAK.

EKINTZEN BALORAZIOA

- Larregain sagardotegira Altzaga eta Aramakoekin irteera. Giro ona eta jende aldetik ere ondo.
- Oihana Kortazar: Hitzaldia oso ondo, pena jende gutxi. Emakumezkoa izateak eragina izan ote duen eztabaidatu da. Datorren urtean kirol astean beste emakume kirolari bat ekartzea erabakitzen da.
- Mendi irteera, data txarra eta eguraldi txarra, ondorioz bertan behera. Hurrengo urtera begira, Kirol astea antolatzekotan eragile guztien artean egitea erabakitzen da.
- Urkiko jaiak: Eguraldi bikainarekin giro eta partaidetza bikaina.
- Herri-urrats: 45 lagun inguru, giroa oso ona. Erramuni omenaldi txiki bat egin zitzaion.

AURRERA BEGIRAKOAK

- Garagardo festa: Ekainak 9-10. Elkartekoak udalera behar dituztenekin eskariak egitekotan geratu dira.
- San Juan sua: Material eskaera Rosik egingo du.
- San Juan suko dantza entsaioak: laz, alde batetik oso ondo egon zela plaza bete dantzari egotea baina bestetik haurrak txikiagiak zirela dantzak irakasteko orduan eta bestetik batzuk arduradun gabe zeudela . Ikastaroan izen emateko epea maitzak 31. Egun berean 18:00etan ordutegiak zehazteko bilera egingo da. Hartzen den erabakia, san juan parte hartzeko gutxieneko adina 10 urte. 10-12 urte bitartekoak arduradun batek lagunduta. Haurrek ez dituzte antortzarik eramango. Bestetik antortzak sutara bota ordez amaitutakoan itzali eta berrerabiltzeko saiakera egitea erabakitzen da.



- Ekainaren 17an, Errefuxiatuen eguna ospatuko denez eta egun guztiko egitaraua izango denez, herri bizitzatik taldeei ongizateak behar duen guztitan laguntzeko deia egiten du.

2. ELKARTEEN EGUNAREN ANTOLAKETA.

- Ekainak 14, arratsaldeko 18:00etan Elkarteen eguna.
- Klean egingo denez, bilera zerbait bisuala eta informala izan dadin nahi da.
- Ongizate eta Hirigintzako lantaldeekin ere hitz egin eta beraiek ere parte hartuko dute. Panelak erabiliko dira.
- Argazkiak eskatuko zaizkien taldeak eragileak ondorengoak dira: Jubilatua, Haurren-herria, Aldizkaria, Arbel-aitz, Urkiko jaiak, Jai batzordea, Kirol elkarte, Emakumea.
- Baita ere azken urte hauetan bidean galdu direnak ere kontutan izatea, Herri eguna, Oriora irteera... Agian hausnarketa baterako bide izan daitezten.
- Maiatzaren 31rako talde bakoitzak bere argazkiak ekarri behar ditu.

3. ABUZTUKO JAIK

Festa batzordea osatu dela baina ez dagoela jenderik abuztuko jaiak antolatzeko prest eta azken urteetan jai hauen gainbehera eta hauek antolatzeko orduan ematen diren zailtasunak kontutan izanda (ez dago jenderik herrian lanerako) . Norbait prest balego jaiak antolatzeko Jai Batzordera etor dadila erabakitzen da, horretarako etxe guztietara buzoneatuko da zein den egoera eta Abuztuko jaietan lan egiteko jenderik azaltzen ez bada abuztuko jaiak bertan behera uztea erabakitzen da. Bilera ekainaren 7an, 18:30etan Festa Batzordea.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Taldeen egunerako argazkiak biltzea	Maiatzak 31	denak
Abuztuko jaien inguruan idatzia egin eta buzoneatzea	Maiatzak 31	Maddi eta Maite
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera ekainaren 14ean, arratsaldeko 18:30etan. Elkarteen eguna ospatu.		